

«Daukagun arrazoa ere irabazi egin behar dugu»

Gernikako Europako Herrien parkean egin dugu zita, Humboldt en eta Bahr-en begiradapean, eta anaia Erramun atxilotu aurretik.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Europako parlamentuan aulki bat izatetik Carabanchelgo kartzela zaharrean ziega bat izatera igaro zen politikaria zara.

Bi parlamentutan izan naiz eta sei kartzelatan, hiru alditan. Lehenengo kartzelaldia 96an izan zen, Carabanchelgo kartzela zaharrean. Handik gutxira itxi zuten, eta kartzela historiko batean azken bisitarietakoak izateko pribilegio berezia izan genuen. Mugan atxilotu gintuzten. Europan ibili ginen, eta azken bisita Nazio Batuen Erakundera egin genuen (NBE), hain zuzen Giza Eskubideen Batzordera. Atera kontuak, handik bueltan atxilotu gintuzten mugan, eta gau hartan bertan sartu gintuzten Carabanchelgo kartzelako soto batean. Ez genituen egun asko egin kartzelan, mahaikide guztiak epaiketara arte behin-behinean aske uzteko erabakia hartu baitzuten. Baina epaiketa eskandalua izan zen, epaiketa politikoa goitik behera, eta zazpi urte eta erdiko kartzela zigorra jarri ziguten guztioi, inolako bereizketarik eta frogarik eman gabe. Ia bi urte egin genituen preso, eta denok batera utzi gintuzten aske 99an. Gure harridurarako, baina, handik urte gutxira berriro ireki zuten 35/02 prozedura hura, eta hemen gaude berriro: kartzelara sartu gaituzte, atera gara, orain ere epaiketaren zain... eta berriro errepikatu nahi dute operazio berbera, oraingoan zigor gogorragoak ezarri nahian.

Kartzelan bi urte egin eta gero behin-behinean zaude aske, epaiketaren zain. Zergatik uste duzu askatu zaituztela orain?

Hori da beste ezaugarri bat: nola atera naizen ni kartzelatik eta zeren ondorioz. Epaiketarik gabeko zigor egoera hori beste bi urtez luza zezaketen, eta atera bagaituzte ez da haien

borondatez izan. Nik hasiera-hasieratik erabaki nuen egoera behin eta berriz salatzea, batez ere, nazioartean. Salaketa oso gordinak aurkeztu ditut, gauzak zehatz-mehatz eta izan diren bezala agertuz, eta Espainiako Estatuaren barruan aurkeztu ditudan salaketa guztiak, tramitera onartu dizkidaten arren, izozturik izan dituzte bi urtetan. Baina aldiz, NBE en ere egin nuen salaketa eta arrazoa eman dit. Gobernu espainiarrari publikoki eskatu dio ni kalean uzteko eta, ez hori bakarrik, indemnitazioa eta ordain publikoa egiteko ere bai, eta hirugarrenik, halako kasuak motibatzen dituzten legeak aldatzeko eskatu dio! Gobernuak ez du halakorik egin, baina lehenengo puntuan behintzat amore eman behar izan du. Hala ere epaiketaren zain gaude, zigor eskari gogorrekin. Ondorioa argia da: Euskal Herriaren garapen demokratikoa eta politikoa trabatu nahian ari dira. Egoera honen aurrean ondorioetara jo behar da derrigorrez.

Zeintzuk dira ondorioak?

Lehenengo ondorioa da independentzia dela edozein euskal herritarrek, edozein koloretako euskal herritarrek gaur egun har dezakeen jarrera koherente bakarra, zentzu intelektualean eta zentzu modernoan. Espainiar eta Frantziar estatuak, biek agertu dute egitura zaharkituak direla, ez dietela, inondik inora, modu positiboan erantzuten Euskal Herria bezalako herri batek dauzkan nahiei eta beharrei. Egitura horiek, gainera, fagozitu egiten dituzte estatu horietan egon litezkeen indar progresistak ere. Zein da, esaterako, sozialismo espainiarraren bilakabidea eta norabidea? Estatu espainiar zaharkitu eta astun honek bere 500-600 urteko historian zehar konstante

Nortasun agiria

Karmelo Landa Mendibe 1952ko uztailaren 16an jaio zen Ean. Euskaltzaindiak earra dela esan arren, Karmelok eatarra edo "ietarra" dela dio, "earra" izateko arazo handirik ez badu ere. Zazpi seme-alabetan zaharrena da. Historia garaikidean eta modernoan lizentziatua, filosofia eta letrak ikasi zituen. Gernikako eta Deustuko ikastoletan hasi zen eskolak ematen, eta EHUKo literatura irakaslea da 1981etik. Politikari ezaguna da. Amnistiaren aldeko mugimenduan luzaro aritu zen lanean; 1990etik 1994ra europarlamentari izan zen, eta baita Gasteizen legebiltzarkide ere, Herri Batasunaren izenean, 1994-98 legealdirako hautatua, harik eta Mahai Nazionala kartzelaratu zuten arte. Orintxe bete du hirugarren kartzelaldia. Behin-behineko askatasunean dago, epaiketaren zain. Hamar urteko kartzela zigorra eskatzen du beretzat fiskalak, ETAko kide izatea leporatuta.

• P E R T S O N A I A •

Karmelo Landa





batzuk mantendu ditu, eta konstante horiek hain dira pisutsuak, fagozitu egin baitituzte ezkerreko ikuspuntutik edo ikuspuntu aurrerakoi edo progresistatik aritzen diren indarrak. Uste dut nabarmena dela inboluzio ikaragarria gertatu dela PSOEek azken gobernuak (Felipe Gonzalezena eta Zapaterorena) eratu zituenetik, bistan da fagozitosi prozesua. Gogoratu OTANen aldeko PSOE, autodeterminazioaren aldeko PSOE, Hego Euskal Herriak lau herrialdetan bat izan behar zuela defendatzen zuen PSOE, Sahararen aldeko autodeterminazioa defendatzen zuen PSOE... Ezkerretik edo progresoaren aldetik mundu ikuspegi bat zeukan PSOEek, eta ikusi orain gobernuan dagoena: erabat makurtua eta eskuin muturraren tesiekin bat eginga. Eta, eskuin muturrarekin baino gehiago, espainiar estatua den errealtate soziopolitiko anker horren menpe kokatua. Zer etorkizun espero dezakegu edozein koloretako euskaldunok, edozein gune geografikotako euskaldunok, espainiar estatua markatzen duen norabide horretatik?

Egitura propioak eraikitzea da, beraz, proposatzen duzuen?

Independentziaren hautuan ahalik eta prozesu inklusiboena egin behar dugu, gauza izan behar dugu etorkizuneko euskal herri independentea elkarrekin eraikitzeko eta Europaren barruan kokatzeko. Ziklo aldaketa sakon baten atarian gaude, baita ezker abertzalean bertan ere, eta ziklo horrek gauza asko berri-tuko ditu eta lehengo gauza asko utziko ditu bazterrean. Baina, nik uste, euskal gizarteak

berak behar duela ziklo aldaketa, eta azken hamarkadetan izan diren ekarpen kultural, sozial eta politiko horietatik gauza izan behar dugu estatu, gizarte eta herri eredu aurrerakoa egiteko. Giza eskubideen definizio zabala izan behar da eredu horren oinarria, eta denok irabaziko genuke. Euskaldunok badugu Europan zer egin eta zer eskaini.

Ziklo aldaketa aipatu duzu. Zerk definitzen du ziklo aldaketa hori?

Nik uste ziklo honen ezaugarri nagusia, estatu espainiarra den egitura handi honen krisi nabarmena dela, estatuak berak ez daukala alternatibarik bizimodu modernora egokitzeko eta, batez ere, menpean dituen hainbat naziori eta herritarri modu egokian erantzuteko. Oinarria hori da: estatu espainiarra agortua dagoela euskaldunoi dagokigunez. Eta zer gertatzen da? Ba, egitura zaharkitu horretatik datozen erantzunak gero eta baldarragoak, gero eta bortxazkoagoak, gero eta desegokiagoak direla. Argi eta garbi esan behar da, dena den, historian zikloak ez direla aurrez markatuak, eta edozein gauza gerta daitekeela. Gernikan ari gara hitz egiten, eta Gernikan historikoki duela ez hainbeste kristoren sarraskia gertatu zen, eta Estatua odolez, minez, hegazkinez eta bonbardaketaz inposatu zen. Edozer gerta daiteke. Historian atzerakada ikaragarriak eta mingarriak gertatzen dira askotan, baina horregatik, hain zuzen, erantzun behar diogu modu egokian zikloari. Euskal populazioaren gehiengoa irabazi behar dugu, espazio propio bat irabazi behar dugu, beregaina. Munduarekin konexio egokia egiteko behar dugu independentzia. Europan kokatu behar dugu baina proiektu batekin, beste herriei batera, proiektu aurrerazale eta zentzu sakonean demokratikoarekin. Halakoetan, eraikitze momentuetan Espainiako Estatuak erreakzio oso bortitzak izan ditu euskaldunontzat behin eta berriro. XIX. mendean hala izan zen, baita XX.ean ere eta ez dugu, zoritxarrez, bermerik pentsatzeko XXI.ean ez direla gauza izango halako sarraskiak probokatzeko. Baina, haien erasoak eraso, egia da, lehenengo geuk, euskaldunok behar dugula gure artean gune demokratiko aurrerakoi bat adosteko ahalmena.

Aukera hau aukera hutsean gera ez dadin, zer da une honetan eragile politiko eta sozial bakoitzak jarri behar duena?

Konpromisoak bide honekin. Nik uste bidea argi markatuta dagoela. Ezker abertzaleak ahalegin handia egin du, eta bidea ondo posibatuta du. Hausnarketak hor daude: zeintzuk dira bideak une honetan? Bide politikoak, bide demokratikoak, bide instituzionalak eta masa mobilizazioarena gehiengoa lortzeko bidean. Beraz, hori errazten duen oro bultzatzen da.

tu behar da, eta hori oztopatzen duen oro bazterrean utzi. Hori dagoeneko erabaki argia da. Gainera, Estatua ahula da eztabaida politikoaren eta bide politiko-demokratikoaren mailan.

Ziklo horren aurrean, batetik, alderdiek egin dezaketen lana dago eta, bestetik, herri mugimendua edo aktibazio soziala. Alde horretatik indartsu ikusten duzu gizartea?

Kontu bat da nola dagoen, nola ikusten dudan, eta beste bat zer behar dugun. Baldintza baikorrak behar ditugu arlo askotan, eta eskandalu bat iruditzen zait preso politiko guztiekin jasaten ari garen egoera, bi estatueta-ko kartzela-politika, Jon Anzaren kasua... Halako estatu jokabideen aurrean zer da behar duguna? Emaizta positiboak eta aurre-rapausoak arlo askotan. Beste eskandalu bat: Arnaldo Otegiarena. Jakina, preso asko daude, baina Arnaldo Otegi baditu ezaugarri berezi-berezi batzuk. Gaur egun prozesu politikoa-ren aldeko ordezkari nabarmenena eta eza-gunena da, nazioartean horregatik eta horretarako babesten dutena, Mandela eta Gerry Adams bezalako pertsonak publikoki babestu izan dutena... Madrilera kartzela ilun batean daukate preso prebentibo. Zer dela eta? Zertarako? Nabarmen-nabarmen, bide politikoa trabatzeko. Zer behar dugu horri guztiari zentzuzko irtenbide bat emateko? Bistan da arlo guztietan aktibatu behar dugula: arlo politikoetan, herri mugimenduetan, mugimendu kulturaletan... Eskubide zibil eta politiko-koen aldeko mugimendu sendo eta geldiezin sortu behar dugu, gizarte instantzia guztietan zilegitasuna, autoritatea eta indarra daukana. Estatu espainolak eta frantsesak Euskal Herrian oinarritzko eskubide zibil eta politiko-ak bermatu ezin badituzte, independentziaren aldeko mugimendua da behar duguna.

Independentzia, zertarako?

Gizarteak sistemak behar ditu, sistemak antolatu behar ditu, eta sistemen gaineko polisiste-

mak. Edozein arlo hartzen duzula, gizartea oso konplexua da eta sistema propioak behar dira modu egituratuan. Bere buruari hezkuntza kontseilari deitzen diotak dio hemendik aurrera berdintasunean egongo direla euskara eta gaztelania. Berdintasunean? Nahi bai! Arzua da herri honetan, Espainian eta espainieran oinarritzen den sistemak hainbesteko pisua duenez, euskararen inguruko sistemak erabat puskatuta daudela. Izan, ez dira sistema ere, ez dute sistema gisa egituratzeko aukerarik. Gizarte beregaina behar dugula, independentzia behar dugula diogunean gauza konkretu horien inguruan ari gara. Zertarako behar dugu guk estatu bat? Ez da kapritxoa, gizarte konplexu hau modu egokian antolatze behar dugu, eta ziurtatzeko dauden premia sozialei modu egokian erantzun diegula: euskararen, euskal kulturaren, euskal hezkuntzaren garapenari... Eta horien sistematizazioari erantzuteko. Sistemek behar dituzte duintasun batzuk, ezaugarri batzuk, defentsa batzuk, instituzio batzuk... Eta hemen ez ditugu. Komunikabideei buruz, unibertsitatei buruz, hezkuntza sistemari buruz, hizkuntzari buruz... hitz egin behar dugu, hau da, gaurkoa bezalako euskal gizarte konplexua antolatze oinarri-oinarritzko elementuei buruz. Euskal Herriak bere sistema propioak behar ditu arlo horietan guztietan. Hartu agenda informatiboa. Nork markatzen du hemengo errealitate informatiboa eta, beraz, errealitatea bera? Piztu irratia, Euskadi Irratia bera esate baterako, eta ikusi agenda horretatik notizia printzipalak nondik datozen, noren interesen arabera eta zergatik sartzen diren. Espainiar komunikazio sistemaren barruan sartzen zaituzte bete-betean. Ezker abertzalearen inguruaz zer gertatzen ari den *El Mundok* esango dizu azalean bertan. Gizarte honek daukan eskandalurik handiena da masa komunikabideen edo mass-medien jarrera. Zer sistema komunikatibo daukagu Euskal Herrian? Beraz, hori da estatu bat edukitzea: sistema propioak edukitzea arlo guztietan.

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com
eskura dezakezu

**Argitaletxearen
azken argitalpena**

Baba zango-horiak
Catherine Zambon
(Itzulpena Txomin Heguy)

argitaletxea
Artezblai



San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com

Karmelo Landa

Unibertsitateak ekarpenik egin lezake hor?

Behar luke. Badira sektoreak garrantzi kualitatibo berezia dutenak edozein gizartetan: unibertsitatea, sektore kulturala, lan intelektuala egiten dutenak, lan politikoa, oro har zientziaren arlo guztietan lanean ari direnak... Eta Euskal Herriarekiko eta gizartearekiko beharrezkoa den konpromisotik oso urruti ikusten ditut. Niri, pertsonalki, lagundu egin dit EHUK, hasi errektoretik eta irakasle, ikasle eta langile askok lagundu didate, hori egia da, esker ona baino ezin dut agertu zentzu horretan, baina modu kritikoa gauza bat esango dut argi eta garbi: unibertsitariok (langile, ikasle, irakasle, errektore...) oso urruti ari gara gelditzen Euskal Herriarekiko erantzukizunetik. Gauden egoera kontuan hartuta, epelegi edo hotzegi jokatzeko du unibertsitateak, eta koiuntura honetan ezin dut ulertu. Eta unibertsitatea aipatu dudana bezala beste hainbat arlo ere aipa nitzake. Hemen konpromiso maila handia behar da, baina ez konpromiso politikoa, eskubide zibil eta politikoen eta eskubide demokratikoen oinarritzeko konpromisoa baizik. Finkatu egin behar dugu ez dugula gehiago onartuko eskubide horien aurkako tamaina horretako erasorik hauteskunderen aurrean, pertsona konkretuen aurrean... Eta horretan ezin da, behin eta berrito, erantzukizun guztia herriko sektore baten lepora bota. Ezin da pentsatu ia eskusiboki ezker abertzalearen gainera bota daitekeenik historiaren bilakaeraren eta aurrerapenaren zama guztia. Zama hori guztion lepo gainean banatu behar dugu. Hemen aldarri soziala da aldaketaren beharra. Nik uste, zinez, ezker

OFF THE RECORD

Eatik Gernikako Europako herrien parkera

Ea
Gernika
Herriak European
European Gernika Ea
Gernika Europa parkean.
Parkean Park(ea)n Pak(ea)n Ea
Eaeaeaherriakpakeaneuropaparkean.
(Eskailera bat independentziarantz?)



abertzalean horren kontzientzia sakona hartu dugula, eta etxe barruan egin beharreko aldaketa guztiak egiteko beldurrik gabe eta erabaki osoz gaudela, baina euskal gizarteari, sektore guztiei eskatzen diegu aipatutako konpromisoa.

Orain zertan ari zara?

Batetik, unibertsitatean eskolak ematen, berehala sartu nintzen eta oso gustura nago, bereziki nire saileko kideekiko esker on handiarekin, harrera oso ona izan baita. Bestetik, kartzelan borroka handia egin nuen nire egoera salatzeko eta kalera ateratzeko duintasunez ateratzeko, eta neurri batean garaipen pertsonal gisa bizi izan dut. Konfirmazio bat izan da jakiteko ezin zaiela ezer ontzat eman, eta borrokatu egin behar dela eta arrazoia irabazi egin behar dela. Dauka-gun arrazoia ere irabazi egin behar dugula. Eta badago irabazteko modurik, ez dute mundua kontrolatzen, ez dute mundua ixten, eta horren konfirmazioa izan da, neurri apalean bada ere, nik eraman dudana borroka. Zuzenbide ikasketa akademikoak ere hor dauzkate, momentuz aparkatuta, ezin baitut denarekin batera jarraitu.

Eta nire arloan jarraitzen dut, literatura eta kazetaritza eta arlo biek elkar ukitzen duten eremu hori aztertuz, eta interes berezia daukat lehen esan dizudan sistemetan: zer diren sistema kulturala, komunikazio sistema, literatura sistema eta kultur sistema Euskal Herrian nola antola daitezkeen; zer dauka-gun eta zer falta zaigun; falta zaiguna nola lor daitezkeen... Horretarako estatua behar da? Nik baietz uste dut. ■

argia.com Karmelo Landa irakaslea, politikaria, literaturzalea... luzeago mintzatu da. Bertso luzea irakurgai duzu webgunean.

SaiazGetaria
H o t e l a

Roke Deuna, 25 • GETARIA
www.saiaszgetaria.com • Tel.: 943 140 143



bilera gela

